



## KOMUNIKAZIO-JARDUERA:

### Garrantzia emanaz

Irudi bidez zerbait komunikatu nahi dugunean garrantzitsua da ikuslea irudian zehar gidatzea. Horretarako, garrantzi gehiena duen atala azpimarratu edo argi eta garbi ikusarazi daiteke hainbat teknika erabiliz.

Koloreen erabilera baliagarria izan daiteke irudiko ekintza edo atal jakin bat azpimarratzerako orduan. Honenbestez, jarduera honetan kolore ezberdinen bidez informazioa komunikatzeko gaitasuna landuko dute ikasleek, animalia ornodunen sailkapena lantzen duten bitartean. Dena den, beste edozein gai lantzeko ere erabili daiteke jarduera hau.

Lehenik eta behin, ikasleek bi kolore hautatu beharko dituzte eta, ondoren, bi koloreetatik suabe edo apalenarekin marrazkiak egin. Kasu honetan, animalia ornodunen sailkapena landuko denez, ikasleek animalia ugaztun horiek marraztu beharko dituzte (talde bakoitzetik bat).

Ondoren, kolore deigarriena erabiltzeko garaia da. Kolore hau erabiliz, ikasleek lehendik marraztu duten animalia bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak marraztu edo birpasatu beharko dituzte. Hala nola, animalia ugaztunen kasuan talde honetako animalien ezaugarri bereizgarriak markatu beharko dituzte irudian, besteak beste, ilea eta ugatzak.

\*Ariketa erraztuko duela uste baduzu, lehenik eta behin animalia ornodunen sailkapeneko talde bakoitzeko ezaugarriak errepasatu daitezke gelan.

Ezaugarri horiek argi dituztenean, ikasleek animalia talde bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak adierazi beharko dituzte euren marrazkietan. Ikasleren batek marrazkia egiteko zailtasunen bat izango balu, kolore deigarriena gezi edo zirkulu bidez zerbait adierazteko ere erabil lezake.

## GELAKO MATERIALAK

Jarduera hau egiteko beharrezko materiala eranskinetan aurkituko duzu.



## KONTUAN IZAN

- **HELBURUA**

Ariketa honen helburua ikasleek informazio garrantzitsuena zein den zehaztu eta hau irudi eta koloreen erabilera egokiaren bidez komunikatzea da.

- **IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA**

Kasu honetan, marrazkiak ez du polita edo hiperrealista izan behar. Horren ordez, marrazkiak argia izan behar du, komunikatu eta ingurukoentzako informazio baliagarria eskaintzea baita bere helburua. Beraz, ikasleen marrazkiak kalitate hain onekoak ez direla iruditu arren, bere komunikazio gaitasuna baloratu behar dugu. Marrazteko zailtasunak dituenak, hitzak ere erabili ditzake, bai eta zirkulu edo geziak ere.

Garrantzitsua da ikasleen lana epaitu aurretik ikasle bakoitzarekin solastea zer adierazi nahi izan duen ezagutzeko, baita, hori adierazterako orduan hartu dituen erabakien zergatia ezagutzeko ere. Ezegokia irudituz gero, hala adierazi ordez, proposamenak egin behar dira, ez gaizki dagoela soilik adierazi.